

## EIGA AZTERKETA 2015

### **1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK**

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatzi ariketa honen amaieran (7. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

1. *Goizaldeko ordu bata izan arren, argi asko daude piztuta \_\_\_\_\_ etxeetan.*
  - a) honezkero
  - b) oraingo
  - c) dagoeneko
  - d) oraindik
2. Aukeratu esaldi zuzena.
  - a) Badago irakasle bat haserretzean ikasleak jotzen dituela.
  - b) Noiz eta goizago oheratu, orduan eta hobeto lo egin.
  - c) Oparia eman dietenei oso pozik jarri dira.
  - d) Eskerrak ikasturtea laster amaituko den!
3. Honako esaldiotako zein emango zenuke ontzat?
  - a) Lau pertsoentzako janaria prestatu dut.
  - b) Lau pertsonentzako janaria prestatu dut.
  - c) Lau lagunentzako janaria prestatu dut.
  - d) Lau lagunarentzako janaria prestatu dut.
4. *Aita, har \_\_\_\_\_ besoetan, nekatuta nago eta!*
  - a) nauzu
  - b) iezadazu
  - c) nazazu
  - d) nakizun
5. Norbaiten etorrerak harridura sortu dizula adierazteko, zein aukeratuko zenuke?
  - a) Nor etortzen eta zu!
  - b) Hara nor etorri den!
  - c) Zu etorrira ere!
  - d) Begira bestea etorri zaigu!
6. \_\_\_\_\_ *biguingarria* \_\_\_\_\_ *film hori, gero!*
  - a) Zelako / da
  - b) Zeinen / dela
  - c) Nolako / da
  - d) Zein / den
7. *Bekokiko \_\_\_\_\_ odola \_\_\_\_\_ artean.*
  - a) zauria / dario
  - b) zauriari / zerion
  - c) zauriak / zirauen
  - d) zauritik / ari zen
8. Erabaki bat partaide guztien adostasunarekin hartu dela adierazteko, zein aukeratuko zenuke?
  - a) Aho batez.
  - b) Aho batean.
  - c) Aho betean.
  - d) Aho batekin.

9. *Praktikak \_\_\_\_\_ asko ikasten da.*
- eginez
  - egiten
  - egiteagatik
  - egiteaz
10. *Ni ez beste guztiak joan ziren hitzaldira. Zer esaldik adierazten du gauza bera?*
- Ni izan ezik, denok ere joan ziren hitzaldira.
  - Ni ez ezik, denok joan ziren hitzaldira.
  - Denak joan ziren hitzaldira, ni izan ezik.
  - Denak joan ziren hitzaldira, ni baizik.
11. *Bibarko hitzaldia prestatzen aritu naiz eta \_\_\_\_\_ erabiltzea pentsatu dut, nire azalpenak hobeki ikus eta uler ditzaten.*
- bildukiak
  - gardenkiak
  - artekiak
  - adabakiak
12. *Irakasle-eskolan ikusi zintudan \_\_\_\_\_ ; zertan ari zinen han?*
- beste egunean
  - aurreko batean
  - lehenean
  - egun batetan
13. *Oztopo egin eta \_\_\_\_\_ erori zen atzo Marta.*
- ahuspez
  - muturka
  - atzekoz
  - buruz buru
14. *Honako esaldiotako zein **EZ** da egokitzen euskara batuaren araudira?*
- Pozik ote dugu irakurlegoa ariketa hauekin?
  - Pozik ote ditugu irakurleak ariketa hauekin?
  - Pozik ote dugu irakurleria ariketa hauekin?
  - Pozik ote dugu irakurle-jendea ariketa hauekin?
15. *Atzo zenbat \_\_\_\_\_ ligatu zenuen?*
- neskarekin
  - neskekin
  - mutikoekin
  - mutikokin
16. *Bilboko Erakustazokan, erakusketa batzuk \_\_\_\_\_ baino ez dira antolatzen, urte batean bai eta hurrengoan ez, alegia.*
- bi urteko
  - bi urtez
  - bi urterik behin
  - bi urtero

17. Esaldi hauetako zein da zuzena?
- Lapurrek ongi zekiten nola etxe hartan sarrera bi zirela.
  - Ezkondu beharra izan zuten, auzokoek zer esango zutenaren beldur.
  - Ezin izan nion, ba, barreari eutsi!
  - Pozik itzuli ziren lasterketatik, zeren parte hartzea zelako garrantzitsuen.
18. *Hain da gosetia \_\_\_\_\_ hori guztia janda ere ez \_\_\_\_\_ aseko.*
- non / litzatekeela
  - zeren / bailitzatekeela
  - ezen / bailitzateke
  - zergatik / baita
19. Honako kargu hauetako batek Eusko Jaurlaritzan lan egiten du. Zein da?
- dekanordea
  - sailburuordea
  - gotzainburua
  - kontramaisua
20. *Gure auto zaharrarekin mendate hori igotzeko \_\_\_\_\_*
- komeriak izan genituen.
  - latzak egin behar izan genituen.
  - bultzakadak egin behar izan genituen.
  - moreak pasatu genituen.
21. Ondoko zerrendetatik hiru ongi daude, baina batek tokiz kanpoko izen bat darama. Zeinek?
- Hostoa, adarra, enborra, sustraia.
  - Habea, zutabea, sabaia, zorua.
  - Poza, haserrea, musu-truk, tristura.
  - Herena, mila, hamartarra, bost.
22. *Aurten ere, gogotik saiatu beharko dute euskal futbol-taldeek, den-denek mailari \_\_\_\_\_*
- eusten badiote.
  - eutsiko baliote.
  - eutsiko badiote.
  - eusteko badiote.
23. *Oso apain jantzi eta prestatu zarete. \_\_\_\_\_* Aukeratu jarraipen egokia.
- Nora joaterakoan?
  - Norako asmotan?
  - Nongo bidean?
  - Nolako asmoa?
24. Zein da zuzena euskara batuaren araudiaren arabera?
- Merezi du liburu batzuk irakurtzea.
  - Merezi du liburu batzuek irakurtzea.
  - Pena merezi du liburu batzuk irakurtzeak.
  - Pena merezi du liburu batzuek irakurtzeak.
25. Hitz-zerrenda hauetako zein dago ongi euskara batuan?
- Arkitekto, iritzi, aurrealde, gotzain.
  - Arkitektu, eritzi, aurrekalde, gotzai.
  - Arkitekto, iritzi, aurrekalde, gotzai.
  - Arkitektu, eritzi, aurrealde, gotzain.

26. Esaldi hauetako zein da zuzena?
- Zenbait kasuetan gezurra esatea ezinbestekoa izaten da.
  - Andonik esan zigun bertan itxarotea, badaezpada ere.
  - Hamaika aldiz esan genion isilik egoteko, baina alferrik.
  - Medikuagatik aginduta, aste bete eman zuten ohean.
27. *Joxeren atorra ez da \_\_\_\_\_, eta gainera ez duzu \_\_\_\_\_ eramaten.*
- zurea bezala / Joxe bezala
  - zurea bezalakoa / Joxek bezala
  - zure modutakoa / Joxerena legez
  - zure moduan / Joxe bezala
28. Zein da **OKER** idatzia dagoen hitza? “Ustez extralurtar jatorriko izaki batzuek bahitu zuten. Esperimentu genetikoak egin ostean, toki berean utzi zuten berriro”.
- extralurtar
  - bahitu
  - Esperimentu
  - genetikoak
29. Honako hauetatik, zein da zuzen idatzia dagoena?
- urteurren
  - urrrangoa
  - hilurren
  - handihurren
30. Honako esaldi honetan, zein da **OKER** idatzia dagoena?: *Araba-zozoen kolonien tamaina kalkulatzeko erabili izan da metodo hori. Populazioak gorabeherak ditu denboran zehar eta horren dinamika ezagutzera kopuru-absolutuak ezagutzera bezain garrantzitsuak izan daiteke.*
- Araba-zozoen
  - gorabeherak
  - kopuru-absolutuak
  - garrantzitsuak
31. Oberatu orduko loak hartzen nau. Zein da esaldi horren baliokidea?
- Oheratu bezain laster loak hartzen nau.
  - Oheratzerakoan loak hartzen nau.
  - Oheratzeko orduan loak hartzen nau.
  - Oheratu eta gero loak hartzen nau.
32. \_\_\_\_\_ hiru urte zuen etxean izan \_\_\_\_\_ Gabonak pasatzen.
- Dituela / ginen
  - Baditu / ginela
  - Bada / ginenetik
  - Badira / ginela
33. *Astelehenean adierazi zigun Mikelek asteazkeneko bilerara \_\_\_\_\_*
- ez litzatekeela etorriko.
  - ezin litzatekeela etorri.
  - ez zela etorriko.
  - ez zitekeela etorriko.
34. *Dena zeuk egin beharrean, ez al da hobe biok \_\_\_\_\_ egitea?*
- elkar
  - erdizka
  - erdi bana
  - bakoitza berea

35. \_\_\_\_\_ *diru gehiago izan*, \_\_\_\_\_ *gehiago gastatzen dugu*.
- Zenbat eta / hainbat eta
  - Orduan eta / orduan eta
  - Gero eta / hainbat
  - Gero eta / gero eta
36. \_\_\_\_\_ *Axular zen ezagunena*.
- Idazle klasikotan
  - Idazle klasikoengan
  - Idazle klasikorengan
  - Idazle klasikoetan
37. *Lurra prestatu beharra dago hazia* \_\_\_\_\_ *aurretik*
- eragin
  - landatu
  - aldatu
  - erein
38. *Horrelako gurdiak bidezidor* \_\_\_\_\_ *honetatik ez dauka pasatzerik*.
- galanta
  - ireki
  - zabal
  - mehar
39. \_\_\_\_\_ *ibili da santa-eskean*. Zein da zuzena euskara batuan?
- Etxez-etxe
  - Etixerik etxe
  - Etixerik-etxe
  - Etxekez etxe
40. Honako esaldi honetan, zer hitz dago **OKER** idatzita?: “Internet sarean polemikarik handiena sortu duena CD-grabagarrien gainean SGAEk ezarri nahi duen kanona izan da”.
- Internet sarean
  - CD-grabagarrien
  - SGAEk
  - kanona
41. Hona hemen atzamarren izenak. Zein dago zuzen idatzia?
- Herpuru
  - Hatzerakusle
  - Hatz-nagi
  - Hatz luze
42. Honako esaldiotan, zein **EZ** da zuzena komaren erabilerari dagokionez?
- Maria, azkenean, ezkondu da.
  - Nik, egia esan, nahiago dut hori, baina hau ere ez da itsusia.
  - Mikel, Iñaki eta Iñigo, badatoz.
  - Ez dira bihar etorriko, etzi baizik.
43. *Edozein aurkikuntza gizaratean onartzeko prozesuak lasaia eta sakona izan behar du*, \_\_\_\_\_ *ernalkuntzaren onarpenarekin gertatu zen bezala*.
- in vitro
  - “In Vitro”
  - In Vitro
  - in vitro

44. Honako izenotatik batek ez du *h*-rik behar: zein da?
- Horria
  - Hostoa
  - Horma
  - Hesia
45. Honako esaldiotan, zein da zuzena?
- Hauxe duzu alferrik josten ahalegindu naizen oihala.
  - Hauxe duzu alferrik josten alegindu naizen oihala.
  - Hauxe duzu alperrik josten ahalegindu naizen oihala.
  - Hauxe duzu alperrik josten ahalegindu dudan oihala.
46. Honako esaldiotan, zein da zuzena?
- Hainbat bileratan gauz xebreak entzuten dira.
  - Ahinbat bileretan gauza xebreak entzuten dira.
  - Hainbat bileratan gauza xebreak entzuten dira.
  - Ainbat bileratan gauz xebreak entzuten dira.
47. Zuzena aukeratu.
- XIX. Mendeko autore batena da Parnasorako bidea.
  - XIX. mendeko autore batena da: Parnasorako bidea.
  - XIX-garren mendeko autore batena da "Parnasorako bidea"
  - XIX. mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*
48. Puntuazio-markei dagokienez, zein da zuzen idatzitako esaldia?
- Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek, hori esatea ere!
  - Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek hori esatea ere?
  - Harrigarria; nork, eta zuk nire anaia zaren horrek, hori esatea ere.
  - Harrigarria, nork eta, zuk nire anaia zaren horrek hori esatea ere!
49. Gizon hura ere \_\_\_\_\_ bilakatu zen kalean.
- usoan
  - usotzat
  - usoa
  - uso
50. *Ez hartu horrenbeste pisu,* \_\_\_\_\_ Bukatu esaldia.
- ez zaizula komeni.
  - ez zaizuna komeni.
  - ez zaizu komeni eta.
  - ez zaizu komenitzen.

## ERANTZUN-TAULA

|    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|
| 1  | 11 | 21 | 31 | 41 |
| 2  | 12 | 22 | 32 | 42 |
| 3  | 13 | 23 | 33 | 43 |
| 4  | 14 | 24 | 34 | 44 |
| 5  | 15 | 25 | 35 | 45 |
| 6  | 16 | 26 | 36 | 46 |
| 7  | 17 | 27 | 37 | 47 |
| 8  | 18 | 28 | 38 | 48 |
| 9  | 19 | 29 | 39 | 49 |
| 10 | 20 | 30 | 40 | 50 |

## 2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu, aukeran erantzun batzuk dituztenak. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu hiru testuen ondoren (13 orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

### 1. TESTUA

#### Zahar-gazte

Heldu den asteko egun batean eguzkiari buelta bat zaharrago esnatuko naiz eta, neure buruari gazte ezin deitzearen marra urrutiratzen noan arren, egun batean zeharkatuko dut, buru-belarri zeharkatu ere. Garaiotako marka da gaztaroaren eta zahartzaroaren arteko eremua ezabatu dela.

Sofoklesek esaten zuen inork ez duela bizitza maite zahar batek maite bezala. Fernando Luis Chiviteri irakurri diot. Berari ere irakurri diot berrogeita hamar urtetatik haratago nolabaiteko zoriontasuna ere egon badagoela, batez ere gastronomikoa eta gutxi gorabehera intelektuala. Horregatik dio —jarraitzen dut Chivite aipatzen—, zerbait egin nahi badugu, mundua aldatu, esaterako, adin hura bete aurretik egiteko.

Niri, heldu den asteko egun batetik aurrera, 13 urte faltako zaizkit zerbait egiteko. Egunotan atera den ikerketa baten arabera, lau urte joanak zaizkit neure gustu musikalak fosildu eta musika berriarekiko interesa (estatistikoki) galdu dudanetik; txarrena da kalkuluari gutxi-asko zuzen deritzodala. Suposatzen dut, gustu musikalekin gertatu bezala, bestelakoak ere fosiltzen joanen zaizkidala gaztaroa dagoeneko ez den bizitzako fase izengabe honetan. Onartzen dut.

Beste zerbaitez jardun behar nuen, baina korapilatu naiz. Adina.

Angel Erro

2015/05/10

Jira, BERRIA (moldatua)



**1.- Testuaren arabera, egileak honako hau dio:**

- a) Laster urtebete zaharragoa izango dela eta jada gaztarotik urruntzen doala.
- b) Gaztea eta zaharra izatearen arteko muga non dagoen argi ez dagoela eta, eguzkia bezain urrun ikusten duela zahartzaroaren etorrera.
- c) Gaur egun, gaztea eta zaharra zer den argi ez dagoenez, berak gogotik ekingo diola egunero baikor esnatzeari.

**2.- Testuaren arabera, Fernando Luis Chivitek honako hau dio:**

- a) Berrogeita hamar urteak beteta, janari eta intelektuari esker erabat zoriontsu izan beste erremediorik ez dagoela.
- b) Berrogeita hamar urte bete aurretik soilik lor daitekeela benetako zoriona; hortik aurrera jan eta pentsatu besterik ez delako egiten.
- c) Mundua iraultzekotan, berrogeita hamar urteak bete aurretik egin behar dela.

**3.- Ikerketa baten arabera, zer gertatzen da hogeita hamabost urteak betetzerako?**

- a) Ordura arte gustatu izan zaigun musika zaharkituztat jo dezakegu.
- b) Ahalegin berezia egin behar da, musika-zaletasuna galduko ez badugu.
- c) Gure musika-joerak finkatzen dira eta bestelakoak ezagutzeko gogoia galtzen da.

## 2. TESTUA

### ***Fracking* edo haustura hidraulikoa auzitan**

Haustura hidrauliko bidez Araban gasa erauzteko asmoak eztabaida bizia eragin du proposatu zen unetik bertatik. Proposamenaren albistea 2011n izan genuen eta berehala zabaldu zen gizartera teknika horren ingurumen-arazoen eta arriskuen berri, pospolo bat txorrotara hurbildu eta ura sutan erakusten zuten bideoekin batera. Esan liteke gaitzespena, mesfidantza eta ezjakintasuna direla nagusi haustura hidraulikoaren inguruan.

Haustura hidraulikoa arroken poroetan gordetako hidrokarburoa erauzteko teknika bat da. Gasa dagoen sakoneraraino zundatu, eta ura sartzen da presioan, beste hainbat konposaturekin batera, arroak puskatzeko, haietan gordetako gasa putzura jariatu dadin, gero biltzeko.

Estatu Batuetan aspaldi erabiltzen den teknika izanagatik, gutxi hedatu da handik kanpora, ohiko gas-biltegiak ustiatzea baino garestiagoa delako, besteak beste. Hidrokarburoen kontsumoaren gailurrera iritsi ahala, ordea, ez-ohiko iturriekiko interesa handitu egin da, lehen errentagarri ez zena lehiakorrago baita itxuraz orain.

Ingurumenaren ikuspegitik, teknikaren alde txar nagusiak dira akuiferoak kutsatzeko arriskua, kontsumitzen duen ur-kantitatea eta ustiaketek hartzen duten azalera handia. Teknikaren segurtasuna zalantzan jartzen ez dutenek, berriz, autonomia energetiko handiagoa eskuratzeko aukera eta sorraraziko duen jarduera ekonomikoa nabarmentzen dituzte alde onen artean.

Eider CartonVirto  
(*Elhuyar* aldizkaria, 2014/04/01)  
(moldatua)

**4. Testuak dioenaren arabera, zer eragin du haustura hidraulikoak Araban?**

- a) Gas-biltegiak ustiatzeko moduak ika-mika sutsua ekarri du.
- b) 2011. urtean gizartean proposamenaren albistea izateak gaitzespena sortu du.
- c) Teknika horren bitartez gasa erauzteko asmoak ezjakintasuna areagotu du.

**5. Testuak dioenaren arabera, zer da *fracking*-a?**

- a) Gas sakona jariatzeko hainbat konposaturekin puskatzea.
- b) Putzuan gordetako hidrokarburoa presioan biltzea.
- c) Arroketan zundatzea, uraren indarra erabiliz gasa ateratzeko.

**6. Testuaren arabera, zergatik da zaila haustura hidraulikoaren teknika hedatzea?**

- a) Teknika hau Estatu Batuetan aspalditik erabiltzen delako.
- b) Oraingoz merkeago eskuratu daitekeelako gasa ohiko biltokietatik.
- c) Ez delako errentagarri izan hidrokarburoen iturrien intereserako.

### 3. TESTUA

#### Zer da eboluzioa?

Izadiari buruz ezer egia bada, haxe da: landareek eta animaliek beren bizitzarako propio diseinatuak dirudite, modu korapilatsu eta ia perfektu batean. Txibiek eta arrain zapalek azalaren kolorea eta taxua aldatzen dute, ingurunearekin nahasi eta harrapakari zein harrapakinentzat ikusezin bihurtzeko. Saguzarrek radarra dute gaez intsektuenganako bidea aurkitzeko. Kolibriak, airean orekan gelditu eta istantean lekuz aldatzeko gai baitira, gizakiak sortutako edozein helikoptero baino askoz ere bizkorragoak dira, eta mihi luzeak dituzte loreen barru sakonean dagoen nektarra zurrupatzeko. Eta bisitatzen dituzten loreek berek ere berariaz diseinatuak dirudite kolibriak sexu-tresna modura baliatzeko. Zeren loreak, kolibriak nektarra zurrupatzera emana dagoen bitartean, polena itsasten baitio mokoan, eta, hala, bisitatzen duen hurrengo lorea ernaltzeko bidea ematen kolibriari. Ondo koipetutako makina bat dirudi izadiak, engranaje konplexu baten hortza izanik espezie bakoitza.

Zer iradokitzen du horrek guztiak, lehen begiratuan? Mekanikari goren baten lana, jakina. Ondorio hori, bere formulaziorik ospetsuenean, William Paley XVIII. mendeko ingeles filosofoak adierazi zuen. Lurrean erloju bat aurkituko bagenu, esan zuen, erlojugile baten lantzat joko genuke, noski. Era berean, ikusirik munduan bazirela ondo egokitutako organismo batzuk ezaugarri konplexuak ageri zituztenak, horrek garbi erakusten zuen bazela haren atzean diseinatzaile jakitun, zerutiar bat: Jainkoa.

Darwinek ondo ezagutzen zuen Paley-renaren moduko arrazoibideen sedukzio-ahalmena. Zenbat eta gehiago ikasi landareez eta animaliez, orduan eta mirespen handiagoa sortzen zaigu ikusirik zeinen ondo egokitzen zaion halako izakien diseinua haien bizimoduari. Zer naturalago, halako egokitzeek diseinu *kontzientea* islatzen dutela ondorioztatzea baino? Haatik, Darwin ez zen lehen begiratuetan geratu, eta bi ideia iradoki zituen —froga frankoz hornituak—, berariazko diseinuaren ideia betiko baztertu zutenak. Ideia horiek eboluzioa eta hautespen naturala ziren.

Ez zen izan eboluzioan pentsatu zuen lehena; beste hainbatek aurreratua zuten biziak eboluzionatu zuelako ideia. Baina Darwin izan zen lehena izaditik hartutako datuak erabiltzen eboluzioa egiazat onartzera ekartzeko jendea, eta hautespen naturalaren ideia, berak sortua, erabat berria zen. Darwinen jenialtasunaren adierazgarri da, izan ere, teologia naturalaren kontzeptua, 1859a baino lehen Mendebaldeko pertsona ikasi gehienek onartua, 500 orrialdeko liburu bakar batek urte gutxiren buruan gainditutzat eman izana. *Espezieen jatorria* obrak mitologiatik benetako zientziara igaroarazi zituen biziaren askotarikotasunaren misterioak.

*Zergatik den egia eboluzioa, ZIO 17*  
Jerry A. Coyne (itzultzailea: Itziar Otegi Aranburu)  
(pasarte moldatua)

**7.- Testuak dioenaren arabera, zer dio egileak?**

- a) Natura hain da konplexua eta aldakorra ezen ez dagoen berari buruzko ezer jakiterik.
- b) Landare- eta animalia-espezie bakoitzak berariazko ezaugarriak garatu ditu eta inguruneari egokitu zaio.
- c) Landareek zein animaliek beren diseinu propioak dituzte, inguruneak ezartzen dizkien beharrak edozein direla.

**8.- Testuak dioenaren arabera, zer dio egileak?**

- a) Naturaren konplexutasunak hasiera-hasieratik jartzen duela zalantzan Jainkoaren existentzia.
- b) Argi eta garbi dagoela, erlojugileak erlojua nola, natura Jainkoak diseinatu duela.
- c) W. Paley-k adierazi zuela izadiaren diseinu konplexua Jainkoari zor zitzaiola.

**9.- Testuak dioenaren arabera, hauetako zer baieztapen da egia?**

- a) Darwinek proposatutako ideiek Paley-ren arrazoibidearekin bat egin zuten.
- b) Agerikotik harago joan eta naturaren diseinua ulertzeko bide alternatiboa jorratu zuen Darwinek.
- c) Paley-ren arrazoibideak ezagututa, diseinu kontzientearen alde egin zuen Darwinek.

**10.- Testuaren arabera, Darwini buruzko baieztapen hauetako zein da egia?**

- a) Eboluzioaren teoria gizartean onartua izan zedin lanean jardun zuen lehena izan zen.
- b) Jeniala izan zen teologia naturalaren kontzeptua jendeak onartzea lortu zuelako.
- c) Aitzindaria izan zen biziak eboluzionatu zuelako ideia izatean.

**IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA**

|   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5  |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |

### 3. ARIKETA: IDAZLANA

Euskara batuan egin behar duzu idazlana, eta gutxienez 250 hitz izan behar ditu. A edo B aukera hautatu behar duzu, eta, aukera horietako bat garatzeko, aukeran dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea.

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan zabalkunde-lanean ari zarela (ez testu akademikoa prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

B) Eskolako **apunteak** prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

| ARLOA                    | GAIK (zure arloko bi gaietako bat aukeratu behar duzu)                          |  |
|--------------------------|---|--|
| <b>Arkitektura</b>       | Eraikinen birgaitzea  | Arkitektura eta energia-eraginkortasuna                              |
| <b>Artea</b>             | Arkitektura gotikoa   | Eskultura barrokoa   |
| <b>Biologia</b>          | Ondoretasunari edo herentziari buruzko teoria kromosomikoak                     | Ugalketa zelularra. Ugal ereduak. Mitosia eta meiosis. Zelula-zikloa |
| <b>Ekonomia</b>          | Agenda 21: herriak munduaren salbatzaile  | Langabezia   |
| <b>Filologia</b>         | Baliabide erretorikoak hizkuntza biziberritzeko tresnatzat                      | Haur- eta gazte-literatura   |
| <b>Filosofia</b>         | Demokraziaren teoria. Askatasuna eta berdintasuna                               | Filosofiaren ekarpena hezkuntzan                                     |
| <b>Fisika</b>            | Energia berriztagarriak   | Jainkoaren partikula: Higgs bosoiak                                  |
| <b>Geografia</b>         | XXI. mendeko migrazioak   | Uholdeak: hondamendi naturalak ala gizakiak eragindakoak?            |
| <b>Geologia</b>          | Arro sedimentarioak   | Biosferaren sorrera eta eboluzioa                                    |
| <b>Gizarte zientziak</b> | 15M mugimendua: jatorria eta ondorioak  | Anarkismoa   |
| <b>Heziketa fisikoa</b>  | Oinarrizko gorputz-hezkuntza  | Kirol-erakundeen kudeaketa   |
| <b>Historia</b>          | Aro berriko erlijio-gudak   | Matxinadak Euskal Herrian  |
| <b>Informatika</b>       | Android eta gailu mugikorren aplikazioen garapena                               | Software librea eta administrazio publikoak                          |
| <b>Informazioa</b>       | Reality-ak  | Emakumearen irudia publizitatean                                     |
| <b>Kimika</b>            | Atomoa eta teoria atomikoa  | Laborategiko lan- eta segurtasun-arauak                              |
| <b>Matematika</b>        | Aldagai anitzeko funtzioak  | Zenbaki konplexuak   |
| <b>Osasuna</b>           | Bizi-itxaropena luzatuz goaz: non dago muga?                                    | Obstetriaren bilakaera   |
| <b>Pedagogia</b>         | Bikaintasunarekiko arreta hezkuntza-sare publikoan zein pribatuan               | Eskola libreak   |
| <b>Psikologia</b>        | Ikuspegi sistemikoak eta konstelazioak  | XXI. mendeko patologia   |
| <b>Teknologia</b>        | Aeronautika. Zergatik egiten dute hegaz hegazkinek? Segurtasun-neurri teknikoak | Dronak   |
| <b>Zuzenbidea</b>        | Oinarrizko errenta herritar guztiontzat   | Ezkontzea edo izatezko bikote egitea: aldeak eta parekotasunak       |

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**



**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN  
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

**UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):**

**AZTERKETARIA:** ..... **NAN:** .....

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

|                   |                   |         |
|-------------------|-------------------|---------|
| Zuzenak:          | Okerrak:          | Zuriak: |
| GAI ( $\geq 32$ ) | EZ GAI ( $< 32$ ) |         |

Irakurmena

|                  |                  |         |
|------------------|------------------|---------|
| Zuzenak:         | Okerrak:         | Zuriak: |
| GAI ( $\geq 6$ ) | EZ GAI ( $< 6$ ) |         |

Idazlana

|     |        |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

|     |        |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

**UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)**  
**<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

Azterketaria: .....

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

**IDATZIA**

| Atala        | Oharrak   | Irizpideak (AKTA) | (X) |
|--------------|---|-------------------|-----|
| Edukia       | ez dio heldu emandako gaiari                          | 4.2.3. (a)        |     |
| Moldea       |   | 4.2.3. (b)        |     |
|              | esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea                     |                   |     |
|              | erregistro desegokia                                  |                   |     |
|              | joskera desegokia                                     |                   |     |
|              | lexiko desegokia                                      |                   |     |
|              | lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia) |                   |     |
| Zuzentasuna  |   | 4.2.3. (c)        |     |
|              | ortografia gaizki                                     |                   |     |
|              | euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea          |                   |     |
|              | deklinabideko huts nabarmenak                         |                   |     |
|              | aditza gaizki erabilia                                |                   |     |
|              | joskera okerra  |                   |     |
| Akatsak      |   | 4.2.3. (d)        |     |
|              | mezua ulergaitz bihurtzen dute                        |                   |     |
|              | akats larriak eta ugari                               |                   |     |
| Beste batzuk |   |                   |     |

Oharrak:

**AHOZKOA**

| Atala        | Oharrak                                       | Irizpideak (AKTA) | (X) |
|--------------|---|-------------------|-----|
| Azalpena     |   | 4.3.2. (1.a)      |     |
|              | jario falta                                   |                   |     |
|              | ez du azalpena ongi antolatzen                |                   |     |
|              | ez da gai azalpen zehatzak emateko            |                   |     |
| Zuzentasuna  |   | 4.3.2. (2.a)      |     |
|              | egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu |                   |     |
|              | ahoskera eskasa                               |                   |     |
| Moldea       |   | 4.3.2. (3.a)      |     |
|              | ez da gai euskara batuan jarduteko            |                   |     |
|              | ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko         |                   |     |
| Beste batzuk |   |                   |     |

Oharrak: